



## Festetako balantzea: “Bikainak”

Agoitzek festak ospatu zituen pasa den abuztuaren 12tik 16ra bitartean. Giro ona eta partaidetza handia izan ziren festetako ezau-garriak, eta eguraldiak, ezin hobea, laguntza eman zuen. 80.190 euroko aurrekontua izan zuen udalak publiko mota guztiei zuzendutako programa prestatzeko.

Aurten ere herritarrek bozkatu zuten festak iragartzeko txartela, eta berriz ere Alfredo León agoizkoak irabazi zuen «Agoit-zen» obrarekin. Baina aurten lehen aldia izan da festei hasiera emateko txupina piztuko zuen pertsona edo taldea bozkatu dela. Herritarrek Agoizko txistulariak eta dantzariak aukeratu zituzten horretarako.

Kirolaren ingurukoak izan dira berrikuntza nabarmenak. Igande arratsaldean, lehenengo aldiz gure herrian, emakumeen arteko esku pilota partida ikusi ahal izan genuen. Horretaz gain, antolatuta zeuden ere gizonen artekoa eta erremonte partidak. Eta asteratean, eskaintza bikoiztu zen Muebles Polque txapelketaren



eskaintza pilotazalearekin.

Festetan ere, herriko hainbat pertsonen lorpenak nabarmendu nahi izan zituen udalak. Txupinazoren aurretik, honakoak omendu ziren: Nerea Larrea eta Mikel Donazar,

duatloi bere kategorian irabazle gertatzeagatik; eta Iranzu González, Karateko Nafarroako Txapelketan bigarren gelditzeagatik eta azken urteetan modalitate horretan izan dituen lorpenengatik.

Igande arratsaldean, udalak Pablo Aristu «Lopetxo» ekarri nahi izan zuen gogora, eta omenaldi bat egin zion hainbeste partida jokatu zituen frontoi berean. Haurraren egunean, Agoizko Kirol Elkarteo kadeteen taldeari omenaldia egin zitzaion Nafarroako hoberena izatea lortzeagatik. Modu berean



bakoitzak egindako lanbide heziketako ikasketetan notarik hoberenak eskuratzegatik; Nerea Bermejo, atletismoko 4x100 modalitatean Espainiako txapelketan zilarra jasotzeagatik; Aitana Moreno, Nafarroako Kirol Jokoetan

aitortza adierazi zitzaion esku-balio taldeari, bere lehenengo denboraldia egiteagatik. Asteartean, Kostradaren Kofradiak Patxi Oloriz omendu zuen, Agoitzen nahiz herritik kanpo pilota eta futbolaren alde egindakoagatik.



Gustu guztientzako eskaintza eta betiko osagarriak gure herriko festak girotzeko: txaranga, behiak, dantzaldiak, erraldoiak, dantzariak, zezensuzkoak, airezko gazteluak... Datozen urtekoen zain gaude jada.

## Sexu erasoaren aurkako kanpaina

Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuak, herriko festen kariatara, «Gure ezetza zuen ezetza da. Zuen ezetza gure ezetza da» lelopean bultzaturiko kanpainaren aldeko atxikimendua adierazi zuen Agoizko Udalak.

Kanpaina garatzeko, Agoizko Udalak hainbat ekintza antolatu ditu. Kanpainaren lema agertzen zuten eta erasoak pairatuz gero egin beharreko aholkatzeko kartelak jarri ziren establezimendu, denda eta tabernetan. Gainera, euskarri horiek berberak erabili



ziren festetako programan. Aurretik, nobedade gisa eta partaidetza handiarekin, Educagoxok bi hitzaldi eman zituen, Nafarroako Gobernuak bultzaturiko kanpainaren xedean oinarrituta; honakoak: «Sexu erasoaren aurreko estrategiak eta tresnak» eta «Abestien azterketa, genero ikuspuntutik». Horretaz gain, azken urteetan egiten ari den moduan, txapak banatu ziren txupinazoa bota aurretik, jaietan ere bortizkeria matxista errefusatu nahi duenak esku gorria eraman zezan.

## “Somos espe(a)ciales”

Agoitz, Unai Lako alkatea herria ordezkatzuz, Zangozako Anfasek berriki martxan jarri duen 'Somos espe(a)ciales' proiektuaren aurkezpen ekitaldian egon zen. Proiektu honen helburu nagusia finantzazioa lortzea da, hainbat zerbitzu eskaintzeko lokal bat eskuratzeko: informatika, autogestioa, familiei arreta...

Horretarako, zenbait artistak, sortzaile, udal, merkataria eta kultur eta kirol elkarrekin laguntzarekin, eskualdeko herrietako argazkiak egin dituzte, egutegi bat osatzeko. Egutegia 5 hilabetekoa izanen da eta urriaren plazaratuko da. Bertan, Aritz Arizkuren eta Patxi Mina agoitzarrak agertuko dira. Argazki guztiak, erakusketa ibiltari bat prestatu nahi da.

“Ahalmen intelektual urria duten pertsonen gizartearen edukia beharko luketen protagonismoa aldarrikatu nahi dugu, hala nola ikusgarritasuna eman elkarteak egiten duen lanari. Haien eskubideak defendatu nahi ditugu: bozkatzekoa, maitemintzearena... Aurrera egin nahi dugu, agertzen garen lekuetan harrera ona eta behar dugun laguntza izan dezagun”. Modu horretan azaldu zen Elena Echevoyen, Zangozaldeko Anfaseko arduraduna.

Gerardo Posada Anfaseko gerentea ere Agoitz bezalako herriek jarduteko oinarri gehiago edukitzearen alde agertu zen ere, bertakoek egin ez zezaten hainbeste kilometro.



## Udal txikiaren auzolana

Festa aurreko egunetan udal txikia osatzen duten neska-mutikoez usuen erabiltzen diren herriko lekualak txukundu zituzten. “Garbi eduki dezagun gure herria” lelopean, eredu izan eta Agoitz garbi edukitzeko ohitura izateko beharra piztu nahi izan zuten. Parkeko atzealdean, Merkatuko plazan, Iturzarrean... jasotako hondarrek betetzeko zuten zenbait poltsa. Goizaren bukaeran aperitibo bat hartu zuten frontoiko parkean.

Ekintza berri hau, txikiaren inizatibaz antolatutakoa, urte osoan zehar eta arrakasta handiz udal txikiak

## 8.577 kg materia organiko konpost bilakatu dute Agoizko San Migel IP eta DBHI-an

Pasa den 2016-17 ikasturtean, Agoizko San Migel Ikastetxeak, Irati HHS Mankomunitatearen laguntzarekin, birziklapenaren inguruko inizatiba berritzaile bat martxan jarri zuen.

Plastikoa eta papera dagokien edukiontzietara botatzeaz gain, konpost bilakatu zuten ikastetxean sortu-



egin dituenetako bat da. Eta festetako ekitaldiekin itxi zuten beren ikasturte “politikoa”.



tako hondakin organiko guztiak. Lehen hezkuntzako laugarren mailako ikasleak izan ziren hori egiteko arduradunak. Astelehenero etxetik eskolara eramaten zuten asteburuan zehar sortutako hondakinak eta konposta egiteko prozesuari jarraipena egiten zioten. Guztira 430 kg sortu dira.

Ikasturte osoan zehar 8.577 kg materia organiko konpostatu dira.

Irati HHS Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie ikastetxeko irakasleei, ikasleei, sukaldeko langileei eta atezainari, bere inplikazio eta eguneroko saiakerarik gabe ezin izanen baitzen proiektua gauzatu. Zorionak!

## Idoia Zabaltza, 25 urte Euskara teknikari

Garazi eta Aezkoako haranen artean komunetan dituzten bazka lurren erabilera arautzeko urtero berri-tzen den bazketarako hitzarmena sinatzeko ekitaldia aprobetxatuz, euskararen aldeko omenaldia egin zen, bi haranen arteko hizkuntza izateagatik eta elkarrekin arteko harremanetan suposatuenagatik. Horren kariatara, Aezkoako Batzarre Nagusiak Idoia Zabaltza Agoizko eta Aezkoako euskara teknikaria eta Esther Urtasun Batzarre Nagusiko idazkaria omendu nahi izan zituen, beren lanetan 25 urte beteta edukitzeagatik.

Elkartasun egun horretan jaso zuten merezitako omenaldian Agoizko udaleko ordezkariak egon ziren.



## Udalekuak euskaraz

Pasa den uztailaren 3an 50 haur/gazte Agoiztik abiatu ziren Agoizko Udaleko euskara arloak urtero antolatzen duen euskarazko udalekuan parte hartzeko. Aktibitatea 10-15 urte bitarteko (LH 4. – DBH 3. maila bitartean) haur eta gazteei zuzenduta dago, eta haren helburua da lagunen artean euskaraz aritzeko ohitura sustatzea, izan ere, udan erabiltzeko aukera gutxiago izaten dituzte. Zugarramurdi izan zen udalekua antolatzeko aukeratutako lekua, hain zuzen ere herri horretako Graxiana aterpea, eta bertan egon ziren uztailaren 8a arte. Pasa den urtean izandako moduan, Dindaia Fundazioa izan zen udalekuaren gestioaren arduraduna; baina, hori bai, Agoizko mo-

nitoreen laguntza izan zuten. Egun horietan, lagunen artean euskaraz aritzeaz eta disfrutatzeaz gain, hainbat aktibitate egin zituzten: tailerrak, kirolak, bisitaldiak (Sorginen Museo, Lezeak), besteak beste.



## Argazki lehiaketa

Irailaren 22ko 13:00ak arte zabalik egonen da Agoizko Udalak antolatzen duen argazki lehiaketan lanak aurkezteko epea. Argazkiak udal bulegoetan aurkeztu beharko dira.

eta nahi duen orori zabaldua dago. 2. Modalitate popularra: bakarrik Agoitzen errolatutakoek parte har dezakete.

Aurkezten diren argazkien gaia Agoitz izanen da, hau da, herriko paisaiak, hirigintza, ondarea, ohiturak, festak, jendea; argitaratu ga-beak izan beharko dute, originalak

eta beste lehiaketaren baten sari-rik jaso gabekoak. Txuri beltzean nahi koloretan egindakoak izan daitezke.

Modalitate orokorreko sarietarako 500 euro ezarri dira, eta sari popularrarentzako, berriz, 300 euro.

Informazio gehiago: [www.aioz.es](http://www.aioz.es).

## Uztaila eta abuztuko kultur jardueren balantzea

Uztaila eta abuztuan zehar, eta tartean herriko festak izan badira ere, udal kultur agendaren aktibitatea mantendu da. KULTUR programak, esaterako, Agoitzen bi formatu aurkeztu zituen. Batetik, Kultur Etxeak Luis Vasalloren «Udako Koaderno» izeneko erakusketa hartu zuen. Marrazki eta pintura sorta bat, instalazio baten antzera. KULTUR programaren barnean ere, Oberena Dantza Taldeak «Oroitzen Hutsak» ikuskizuna taularatu zuen. Ikus eta entzuteko emeraldia bikaina izan zen, José Ángel Dorremotz ttuntuneroari omenaldia txikia eskaintzeko erabili zena.



Antzerkiak ere leku propioa izan du udako hilabete hauetan. Zirika Zirkus konpainiak «Geltokia» an-

tzezlan dibertigarria eskaini zuen jendez gainezka zegoen herriko plaza batean.

Angiluerrekak Garagardoaren Festa antolatu zuen berriro eta beti bezain arrakastatsua izan zen. Jardunaldiak partaideak irabazten ditu urtetik urtera, izan ere, Merkatuko plazan belaunaldi guztietako jendea biltzen du, denak gozatu nahi baitute bertan eskaintzen diren garagardo goxoez eta musika onaz.

Aurten, festak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin egiten den erakusketan ikusgai jarri ziren ere aurreko urteetako kartel irabazleak. Erakusketa berean ere ikusgai zeuden Udan Plastikaten izeneko tailerrean eginiko lanak.

## Kostradaren XIX. Lehiaketa

Agoitzen, ohitura den moduan, jaiak hasi aurreko egunean, Kostradaren XIX. Lasterketa antolatu zuen Kanpondoak, Agoizko Udalaren laguntzarekin.

Eguraldiak lagundu egin zuten, eta inoiz baino izen-emate gehiago izan ziren kategorია guztietan. Lasterketaren ibilbide osoan zehar giro ona izan zen.

Zitarako, bi kategoría ezarri ziren: lasterketa absolutuak, 4.600 metroko distantzia egiteko eta haurren kategoriako lasterketak (200 m.; txiki-txikiak eta txikiak, 400 m.; neska-mutikoentzako, 800 m.; haurrentzako, 1.400 m.; eta kadeteentzako, 2.400 m.)

Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiegu Kostradaren Lasterketa arrakastatsua izateko boluntarioki laguntza eman zuten guztiei.



Argazkiak: Aser Vidondo

## Udal kirol programazioko ikastaroak

Kanpondoak eta Udalak 2017-2018 denboraldirako antolatutako kirol programazioko ikastaroetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago irailaren 20a arte, asteazkena, eta kirol gunean bertan gau-

zatu behar da. Informazio osagarria behar duenak telefono zenbaki hauetara dei dezake: 948 33 67 06 edo 661 634 010; bestela, mezua igortzea du ere [info@kanpondoa.com](mailto:info@kanpondoa.com). helbidera.

## “La Induráin”-ek Agoitz zeharkatu zuen

‘La Induráin’ izenarekin ezagutzen dugun txirrindularien martxa Agoitzera hurbildu zen pasa den uztailaren 22an. Txirrindulariak herrira sartu ziren, herriko ardatz nagusia zeharkatu eta Auritzera eramaten duen errepidera zuzendu ziren goizeko 9ak aldera. Herriko batzuk partaideak animatzera atera ziren, eta ailegatu ahala gogoz animatu zituzten.

Lasterketan 1.900 bat partaide izan ziren. Horien artean ezagunak zeuden ere, Egoi Martínez, Fernando Escartín, ‘Purito’ Rodríguez eta Miguel Induráin, esaterako. Lasterketa ez zen lehiakorra izan eta bi ibilbide desberdin egiteko aukera ematen zuen. Bat 100 km-koa eta bestea 180 km-koa. Lehenengoan Javier Etxarri gertatu zen garailea eta bestean, berriz, Abraham Olano txirrindulari ohia.

